

Ipuintxo bat gauero betiko alegiak I



ASTO TXISTULARIA



Baserriko animalia guztiek ondo ezagutzen zuten elkar. Denbora mordoia zeramatan jadanik han bizitzen eta baserritarrarekin batera lan egiten. Denek zekiten txerria lotia eta arlotea zela, sekula ez zuela

ezertxo ere egin nahi egun erdia lo
ematen zuelako, eta beste erdia, jaten.
Bazekiten, gainera, oiloak hitzontzi
hutsak zirela, batetik bestera ibiltzen
zirela egun osoan karaka, isiltasunari
tarterik egin gabe. Eta untxiak?

Oi, horiek lasterkari amorratuak zi-
ren, dena zikintzen zuten. Eta zer egi-
ten zuten? Ez zuten baserriko lanetan
batere laguntzen. Astoak, aldiz, bai,
laguntzen zuen.

—Putzutik ura ekartzen du —aitor-
tu zuen txita batek.

